

Euskal herrietan komentuz komentu

Mesedetako fraideak

Los Mercedarios han tenido una misión muy especial en la historia socio-religiosa de Euskal Herria, desde que en el siglo XV nuestros hombres de mar participaron activamente en el comercio y las tareas armadas del Mediterráneo, con el riesgo de caer en manos berberiscas. Ejercieron de mediadores para el rescate de nuestros cautivos en Argel y otras plazas maghrebíes.

Gaur egun Mali edo Afganistanen bahitu dituztenak askatzeko, edo Somalian harrapatutako itsasgizonak etxeratzeko lanak izaten dira, eta Gobernuak ere esku hartu behar izaten du. Garai batean Gobernuen arteko harreman horiek ez zuten bide onik, eta kristau herrietan eginkizun horretarako Ordena erlijioso batzuk eratu ziren, kristau preso hartuak jaregiten lagun zezaten.

Fraide mesedetakoak

Ordena horietakoa izan da Mesedetako Amaren fraideen Ordena (1218), gaztelaniaz *Orden de la Merced* eta *mercedarios* bezala aipatua, Pedro Nolasco-k Bartzelonan sortua. Jaiotzean, lagunarte herritar laikoa izan zen Elkarte hura, eta hasieratik bertatik herri musulmanetan preso zeuden kristauak askatzen bitartekari-lana egin nahi izan zuen. Dirua, politika eta sinestunen fedea, dena batera, behar izaten zuten zeregin haietan arrakastarik izateko.

XIII. mendean zehar, artean Ordena laikoa zelarik, Aita Santuen aitorten juridikoa (1235) eta Konstituzio onartuak izan zituen (1272), betiere zaldun laikoak buru zituela. Esan beharra dago, gainera, XIII. mendean bertan emakumezkoek mesedetako serorategiak eratu zituztela, askatutakoak beren sorterrietara joan aurretik zaintzeko, eta, oro har, limosnak biltzen ibiltzeko ere (1265).

Hasieran Ordena militar gisara ziharduenak

zeregin armatuak utzi eta ongile- eta askapen-lanari osorik emana bizi nahi izan zuen, erlijioso-entzat zilegi izango ez ziratekeen ekintza armatuetatik aparte. Horregatik, hurrengo mendean etorri zen klerikal bihurtzeko unea (hau da, elizgizon-emakumez osatzeko tenorea), Elkarte laiko hari bere egituretan izaera berria emanda. Horrela bihurtu ziren jatorrizko senitarte hartako herritar laikoak fraide eta moja, baina gatibuen betiko askapen-asmo berari eutsiz (1317, 1327).

Handik aurrera modu berri eta eraginkorragoz ekin zioten mesedetako fraideek beren egitekoari, Mediterraneoko bi kostaldeetan, Europan bezala Afrikan. Penintsula Iberiarrean laikoen kofradia laguntzaileak ere sortu zituzten, fraideak berak iristen ez ziren herrietan gatibuen askapenerako laguntzak eta dirua biltzeko.

XIV. mendeko lehen hamarkadetan 57 Etxe izatera heldu zen Ordena, eta Nafarroan bazeuden lau Erdi Aron (1317). Errege Katolikoengantik hasi eta Karlos V.aren edo Felipe II.aren mendean (1517-1598), Mediterraneoa gerra-leku latza izan zenean, eta hamaikatzko itsasgizon preso hartu zutenean, mesedetako fraideek zerbitzu oso estimatuak eskaini ahal izan zituzten, gure herrietako gizonak etxeratu ahal izateko. XVII.aren lehen hamarkadetan (beste zenbait Ordenak zerbitzu lehenago bezala), bere erreforma izan zuen, Mesedetako Oinutsen Ordena sortzean, eta,



Esklaustrazioaren ostean, XX. mendearen hasieratik Mesedetako Familia osoa izan dugu berriro euskal Hegoaldean.

Internet-en Ordenako atariak esaten digunez, 70.000ren bat gatibu askatzea lortu zuen Ordenak, Frantziako Iraultza arte (1789). Bestalde, kultur-munduan, mesedetako izen handien artean daude Tirso de Molina antzerkigile madrildarra (1579-1648), eta F. Zumel teologoa (1540-1607), Salamancako katedraduna.

Euskal Herriko mesedetakoak

Aita Juan Laka bizkaitarrak eman zuen Institutu honen berri Arantzazun bildu zen Erljiosoen Historiako Kongresuan (2002), eta besteak beste, argibide berriak ere ekarri zituen, mesedetako fraideek, erlijioso bezala, Arantzazun izan zuten lehenengotasuna gogorarazteko.

Mesedetako fraideek nahiko goiz izan zituzten bi Etxe Nafarroan, bat Iruñean eta bigarrena Zangozan (biak ere 1299koak), eta ez askoz geroago Tuteran eta Lizarran (1317). XIV. mende hartan bertan Bizkaian ere ireki zuten Etxe bat, Barakaldoko Burtzeña auzunean (1384), Bizkaiko bigarren fraide-komentua hain zuzen. Jada Erdi Aro hartan, segur aski Etxe haiek ez zuten begiratzen beren inguru hurbilera bakarrik, baizik eta, lekturik zeuden herrietatik erbesteko euskal preso guztiekiko ardura ez zitzaien falta izan. Historiak aurrera egin ahala, emakumezkoen mesedetako serotategi bizkaitarrak hamar izan dira, beste hainbeste herritan.

Historia hurbilagora gatzela, gogora dezagun mesedetako Erakundeen Familia asko zabaldu dela gurean XIX-XX. mendeetan, fraideen bi Ordenez gain, Kongregazio berriak sortu baitziren Familia berean, batez ere emakumezkoenak,

Erdi Arotik zetozen Lehenengo, Bigarren eta Hirugarren Ordenen ondoan. Hain zuzen hauetxek izan dira Euskal Herrian mesedetako Familiaren presentzia gehien indartu dutenak.

Azken hamarkadako euskal mesedetakoak gutxienez bost Institutu ezberdinetakoak izan dira: fraide mesedetakoen bi daude Bizkaian (Bilbo-La Peña, Lekeitio), eta emakumezkoen artean Kariatetako mesedetako mojak dira etxerik gehien izan dutenak (16); Institutu gaztea izan arren, Berrizko misiolarietako zortzi etxe izan dituzte (Bizkai-Arabetan); moja klausurakoen tradizioa ez da falta Familia honetan, gisa ezberdinetako lau komentutituztela (denak Bizkaian).

Herrialdez dihardugula, Araban zazpi dira mesedetako Etxeak, Bizkaian hamalau, Gipuzkoan bederatz, eta Nafarroan bat. Beraz, Hegoaldean guztira 31, azken urteetan mesedetako Familiako Institutu ezberdinenak. Iparraldean, dakidanez, ez dute lehenago Etxerik izan, eta gaur egun ere ez.

Mesedetakoek, garai bateko gatibuen aldeko lanaren ostean, bestelako zeregin anitzetan esku hartu dute, Kongregazio berrien bidez batik bat. Espainiako presondegi handietan lan egin dute, batetik, baina are gehiago irakaskuntzan, misioetan, parrokietan, osasun-munduan eta abarretan. Egia esan, gure XX. mendean Familia honek izan duen lekua ezagutzeko historia orokor egokia beharko genuke, oraindik idatzi gabe dagoena. Hegoaldeko hiriburuez gain, herri-saila da mesedetako Etxeak izandakoa: Lekeitio, Leioa, Loiu, Gernika, Ibarra-Orozko, Berriz, Markina, Azpeitia, Mutriku, Zumarraga, Eskoriatza, Oiarzun, Arrasate edo Nafarroako Alkotz.

Joseba Intxausti